


Euskal AEko BPG egonkor 2013ko hirugarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean

Aurreko urtearen aldean %1,1 gutxitu da

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) lehengoan da (%0,0ko aldakuntza) 2013ko hirugarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Tasa hau Espainiako ekonomiarena baino hamarren bat txikiagoa da, INEren datuen arabera.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, jaitsiera %1,1 da, bigarren hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago negatiboa. Tasa hau Espainiako ekonomiarena (%-1,2) baino hamarren bat hobe da.



Urtaroren eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena. Erreferentzia urtea, 2010

Eskaintzaren ikuspuntutik, 2013ko hirugarren hiruhilekoan sektore guztiek izan dituzte urte arteko bilakaera negatiboak; denetan ere tasak zertxobait gutxiago dira negatiboak. Eskariaren aldetik, kanpo sektorearen ekarpena positiboa da oraindik ere eta barne-ekonomiaren urte arteko negatiboa du, aurreko hiruhilekoan bezalatsu.

Enpleguan tasa negatiboak ditugu bai aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (%-2,0), bai aurreko hiruhilekoaren aldean (%-0,3). Enplegua dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtzen da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua